

## **Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariak gaitzesten du Bilbon gertatu emakumearen erailketa, bikotekidearen esku**

**Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariak, Mariola Serranok adierazi nahi du erabat gaitzesten duela Deisy Mendozaren heriotza, Bilbon gertatu dena, gaur, abuztuaren 22an, bikotekidearen esku. Era berean, biktimaren familia eta lagunekin elkartasuna adierazi du eta beraien esku jarri da.**

Mariola Serranok azpimarratu du "genero-indarkeria errotik kentzea lortzeko lanean jarraitu beharreko konpromiso irmoa izateko beharra dagoela, gizarteak berezko egin ditzan berdintasun-balioak, hezkuntzaren, sentsibilizazioaren eta prebentzioaren bidez. Emakumeen kontrako indarkeria egon bitartean, legea zorrotz betearaztea zainduko dugu, zigor eta delitu horien jazarpenaren bidez", gaineratu du.

Halaber, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariak nabarmendu du "indarkeriazko beste ekintza horrek goibeltzen duela jai-giroa; eta, berriz ere, gogoratu behar dugu genero-indarkeria gizartearen arazo larria dela eta gu geu eragiten gaituela, konpontzearen zatia denok baikara. Ezin dugu ahaztu erruduna beti dela emakumeari tratatu txarrak eragiten dizkiona. Beraz, funtsezkoa da jendaurrean zero tolerantzia adieraztea jokabide horien aurrean."